

Isabel Etxebarria

URRUÑAKO HAUTETSI ABERTZALEA

Estatu dekadentea

Ben Barka 1965ean desagerrarazi zuten, 2004an Michèle Alliot-Mariek (MAM) gaiari lotuak eta sekretupean ziren dokumentu guztiak ateratzea agindu zuen. Ondorioz, zer gertatu zen, gutxi gorabehera, jakina da. Desagerketaren arduradun nagusia ez da sekulan epaitua izan eta kolonialismoaren kontrako militantearen gorputza ez da sekulan agertu.

Euskal militante lau desagertu dira frantses agindupean dagoen lurralde honetan. Ez ziren denak erakunde berekoak, bai erakunde armatu bateko militanteak, bizi arrunta egiten zutenak, behintzat atxilotuak izateko aukera guztiak eskaintzen zutenak. Gertakari horiek estatuek, daukaten tresna eta podere guztiarekin, politikaz duten ikuspuntua agerian uzten dute. Horretaz galdetu zaio MAMi Donibane Lohitzuneko plazan, bestak zirela-eta etorria. Hautatu behar du zer-nolako politikaria izan nahi duen, bera barne ministro izaki gertatu baita azken desagerketa.

Sarkozy jaunak, irrati baten bidez Irango Gobernuari adierazi nahi izan dio hango herriak hauteskondeez egia jakin nahi duela. Iranek petrolio asko dauka, besterik ere, ondorioz Frantziako Gobernuak interes berezia du hango agintearen baitan presio egiteko. Hemen gertatzen denaz “omerta” da nagusi.

Horrela, estatuaren, agintarien botere gehiegikeriak egunerokoak



GAIZKA IROZ

ditugu. Sarkozyk azken komedia Versaillesen antolatu du, erabaki arrunten iragartzeko, adibidez mailegu berria eginen duela, etengabe eginen dituelarik Estatuko kutxen defizitaren estaltzeko, ikaragarria baita. Prentsa mintzaldiaz eta inguruko apainketaz aseko da, lanpostu heste eta seguritate sozialaren suntsitzea, itzalean eginen da, agintean egonez, hauteskundeetako emaitza negargarriak argudiotzat hartuz.

Frantziako Gobernuaren politika irabazi sozial guztien suntsitzera doa, Sarkozyk horren ardura hartu du eta erreformak egiten ditu horretarako. Oposizioa desegin du eta azken hauteskondeek erakusten dute ezkerrek ez duela zereginik, ez duela gaitasunik martxan den makinaren gelditzeko.

Euskaldunentzat une egokia da gogoratzeko Frantziako Estatuaren alderdi ilunak, kolonietan egin dituen desmasiak, deskolonizazioaren garaian sortu dituen gerlak, autodeterminazioaren alde borrokatzen zirenak terroristatzat joz eta preso sartuz. Gogoratzeko Versaillesen bildu diren ordezkariak gurea ez den estatua goraiatzera joan direlarik, han zirenek botere absolutuaren nostalgia entzutera joanak zirela. Euskaldunentzat une egokia bide berria hartzeko, gure buruaren jabe izateko bidea, dekadentea den estatu horren aitzinean gure bidea egiteko. ■

«
Frantziako Gobernuaren politika irabazi sozial guztien suntsitzera doa, Sarkozyk horren ardura hartu du eta erreformak egiten ditu horretarako
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Oiartzunen ginen bertako eskolak antolatu Atharratzeko ikastolaren aldeko

bazkarian. Bazkalosteko emanaldi laburrari, zuberotarrek plazan emandakora egin genuen. Musikiariak, kantariak eta dantzariak. Konpleto. Agerraldi profesional petoa gure gozamenerako. Biharamunean Tolsaldeko Urkizu gaineko pagadi batean *Et Inkarnatus* harizko orkestrak kontzertoa eman zuen. Anfiteatroan, pinudiak jan ez duen eremuan garo lehorra azpi tapiz eta malkarra eserleku. Behealdean orkestrako musikariak erdi borobilean, gibelago Iruñeko eta Baigorriko gaiter

Igandean

roak osagarri. Hots orekatua pagoen ostrajea biltzaile. Errepertorioa, pieza ezagunez osatua eta tartean Piazzolaren

tango jolastak, ohiko jazz zaleen asegarri. Bukaerarako, Ana Otxoak bere ahots landuaz eta bereziki bere teknikak ahalbidetzen zion indar espresiboz pagadia antzoki bilakatu zuen. Plazer bat bertaratu ginenentzat. Miel Zeberio zuzendariak joan den hamar urtetan eginiko kontzertoen laguntzaile konplizeak publikoki eskertu zituen. Izen bi baino ez ditut gogoan, Antxon Bandres eta Pako Etxebarria, bestelako merituk medio ezagunak. Bestelako mundu bat posible da. ■